



ZUBIAK

ZUMALAKARREGI MUSEOAREN
2025-2026 HEZKUNTZA ESKAINTZA

*Gipuzkoa
Behin Betiko:
Lurraldea
XIX. mendean*

GIPUZKOA

*Definitivamente
Gipuzkoa:
El territorio
en el siglo XIX*



Aldi baterako erakusketa
Exposición temporal

2025-06-25 / 2026-01-04
25-06-2025 / 04-01-2026

AURKIBIDEA

AURKEZPENA..... 3.or

IBILBIDE DIDAKTIKOAK

Iraultza garaia.....5.or

Zumalakarregi anaiak.....6.or

Gerra eta bakea.....7.or

Museoko Haur ibilbidea.....8.or

SAIO BATEKO TAILERRAK

Kulturaniztasuna eta migrazioa.....9.or

Migrazioa eta historia.....10.or

XIX. mendeko janzkera.....11.or

Komikia.....12.or

Iruditik zinematografiara.....13.or

Emakumeak Zumalakarregi museoan.....14.or

SAIO UGARIKO ESKAINTZA

Feillet ahizpak ezagutzen.....15.or

Gure ondarea.....16.or

Guztiok gara migratzaile.....17.or

KANPOKO IBILBIDEAK


Ormaiztegiko trenzubia.....18.or

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Gipuzkoa behin betiko.....19.or

ESKAINTZA OSOA.....20.or

ELEMENTU OSAGARRIAK.....21.or



Zumalakarregi Museoa ateak irekitzen dizkio hasi berri dugun 2025-2026 ikasturteari.
Aurtengo Hezkuntza eskaintzan hainbat nobedade gehitu ditugu!

Maila guztiei egokituta dagoen Hezkuntza eskaintzaren bidez, Museoa eta Hezkuntza Zentroak lotzen dituzten zubiak eraikitzen jarraitzen dugu. Beraz, aurkezten dugun eskaintza, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Erdi mailako, Batxilergoko, Goi Mailako, Lanbide Heziketako eta Helduentzako Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dagoen programa da.



HELBURUAK

- XIX. mendean izandako gertakizunak zabaldu gaur egungo ikuspuntu batetik, gaurkotasuna ulertzeko gakoak eskeiniz.
- Belaunaldi berriei historia hurreratu formatu eta mintzaira ezberdinen bidez.
- Ahots anitzei lehentasuna eman, gertaera historikoak begirada eta interpretazio ezberdinen bidez ezagutu eta ulertu ahal izateko.
- Gaitasun kritikoa garatzen laguntzea, pedagogia aktibo batetik abiatuta.



KONTAKTUA

Telefona:
943 88 99 00 - 659 43 45 66

Korreo:
mzumalakarregi@gipuzkoa.eus

Museoko hezkuntza arduraduna:
Cristina Álvarez Núñez
calvarez@k6gestioncultural.com





ORDUTEGIA

Martxoaren 1etik, urriaren 31ra arte:

Asteartetik larunbatera eta jai egunak: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igandea: 10:00-14:00.

Azaroaren 1etik, otsailaren 28ra arte:

Asteartetik ostiralera eta jai egunak: 10:00-14:00.
Larunbatak eta jai egunak: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.



TARIFA

Hezkuntza taldeak:

Asteartetik ostiralera: 2,5€
Ostegunetan: 1€

*Irakasleek sarrera doan.





IRAULTZA GARAIA

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 4. maila, Erdi Maila, Batxilergoa, Helduentzako hezkuntza eta Lanbide heziketa

Iraupena: 1 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak:

XIX. mendeko Euskal Herriko karlismoa eta liberalismoa ulertzea XIX. mendean zehar.

Konpetentziak:

- Hiztegi espezifikoa eskuratzea.
- Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea.
- Talde lana.

Deskribapena:

Iraultza garaia ibilbidek Antzinako Erregimenetik Sistema Liberalera eman zen trantsizio konplexu eta bortitzean murgiltzeko aukera emango du. Euskal Herrian karlismoa eta liberalismoaren artean egon zen liskarraren errepaso bat proposatzen du: Bi Gerra Karlistak, liberalen garaipena eta foruen abolizioa, industria iraultza. Gainera, pertsonai desberdinak ezagutzeko aukera ematen du, hala nola, Zumalakarregi Anaiak, Muñagorri, Santa Kruz Apaiza eta Agosti Xaho.

* *Ikasleentzako material didaktikoa barne*

Hizkuntza:

Euskaraz, gazteleraz edo ingelesez egin daiteke.

* *XIX.mendeko Ormaiztegiko trenzubiaren bisita gidatuarekin ere konbinatu daiteke.*

ZUMALAKARREGI ANAIAK:

JENERAL KARLISTA ETA POLITIKARI LIBERALA

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3 eta 4. maila, Erdi Maila, Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Helduentzako Hezkuntza eta Goi Maila.

Iraupena: 1 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak:

- XIX. mendeko Euskal Herriko gakoak ezagutzea
- Eta Zumalakarregi anaien pentsaera desberdinak ulertzea.

Konpetentziak: Pentsaera kritikoa garatzea: perspektiba desberdinak izatea, lantzen diren gaiarekiko dauden pentsaera ideologiko desberdinak ezagutzea.

Deskribapena:

Zumalakarregi anaiak ibilbide gidatuak Antzinako Erregimenetik Liberalismora egon zen transizioan zehar ibilaldi bat proposatzen du. Tomasek jasotako sistema defendatu zuen karlismoaren buruzagi militar bezala, Migelek, bitartean, politikari modura, gizarte eta politika sistemen aldaketaren alde borrokatu zuen. Famili bakar batek prozesu honetan aurrez aurre zeuden ideologiak aztertzea ahalbideratzen digu.

Hizkuntzak:

Euskaraz, gaztelera edo ingelesez egin daiteke.





GERRA ETA BAKEA

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila, Erdi Maila, Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Helduentzako Hezkuntza eta Goi Maila.

Iraupena: 1 ordu.

Helburu espezifikoak:

Gerraren ondorioei buruz hausnarketa egitea.

Konpetentziak:

- Elkarriketa eta eztabaidaren erabilera.
- Talde lana.

Deskribapena:

Biolentziaren erro, forma eta ondorioei buruzko hausnarketarako proposamena, gatazkaren eredutzat Lehenengo Karlistada hartuz. Bergarako Hitzarmena gatazka konponketa eta bake prozesuaren eredu.

* *Ikasleentzako material didaktikoa barne*

Hizkuntzak:

Euskaraz, gaztelaraz edo ingelesez egin daiteke.

* *Beste edozein ibilbiderekin konbinatu daiteke.*



ZUMALAKARREGI MUSEOKO HAUR IBILBIDEA

Nori gomendatua: Lehen Hezkuntza

Iraupena: Ordubate

Helburu espezifikoak:

XIX. mendeko gizartearen eta gaur egungo gizartearen artean hainbat eremutan dauden desberdintasunei buruz ikastea

Konpetentziak:

- Hiztegi espezifikoa eskuratzea
- XIX. mendean erabiltzen ziren hainbat tresnak ezagutu
- Talde lana

Deskribapena:

Haur ibilbide honek museoa haurrei bisitatzeko aukera eskaintzen du. Ibilbidean erabilitako hizkuntzaren helburua bisita haurrei egokitzea da, XIX. mendeko errealitate soziala ulertzen laguntzen duten gakoak eskaintzen dituen bitartean.

** Ikasleentzako material didaktikoa barne*

Hizkuntzak:

Euskaraz edo gaztelaniaz egin daiteke

KULTUR ANIZTASUNA ETA MIGRAZIOA



Nori gomendatua: Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. maila.

Lanketa eremua: Migrazioa, kultur aniztasuna eta sentsibilizazioa.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Helburu espezifikoak:


- Migrazioa gizakiari datzekion elementu moduan aurkeztea.
- Kultur aniztasunaren aberastasuna aurkeztea.
- Ezberdin sentitzearen arriskuak aurkeztu eta kontzientzia soziala sustatzea.

Deskribapena:

Migrazioaren kontzeptuaren inguruan lanean hasteko, animalien migrazioa aurkeztuko dugu. Ondoren *Carlotaren ipuina* kontakizunarekin jarraituko dugu. Pertsonaia honen ibilbideak, ezberdin sentitzearen errealitatea aurkezteaz gain, migrazioaren gaiarekin jarraitzeko. Aniztasun kulturala aurkeztu, euskal tradizio zein irudi historikoekin eta munduan zehar dauden estetika ezberdinak aztertuz. Azkenik, film animatua ikusiko dugu aniztasunaren aberastasuna aurkezteko eta balioan jartzeko.



MIGRAZIOA ETA HISTORIA



Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Lanketa eremua: Migrazioa, kultur aniztasuna eta sentsibilizazioa.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Helburu espezifikoak:

- Migrazioa gizakiari datzekion elementu moduan aurkeztea.
- Egunerokotasunean eragina duten gizarte fenomenoekiko hausnarketa kritikoa sustatzea.
- Pentsamendu kritikoa eta kontzientzia sustatzea belaunaldi berrien artean, eztabaida sozialetan parte hartzea bultzatzea.

Konpetentziak:

- Enpatia garapena: pertsona migratzailearen lekuan ipiniz.
- Gaur egungo migrazio fenomenoaren ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Gure inguru hurbileko gizarte-aniztasunari buruzko sentsibilizazioa.

Deskribapena:

Leopoldina Rosa itsas ontziaren historiaren bidez, migrazio prozesuei buruzko hausnarketa egiteko aukera da. Gizakiaren historiatik barrena paseo bat proposatzen duen unitate didaktikoa da, euskal migrazioa eta egungo migrazio mugimenduak barne.

Leopoldina Rosa

Gaur egungo istorio bat
Una historia de hoy



Baionatik/de Bayona



Montevideora/a Montevideo

Bidaia Itsasaldia

El viaje La travesía

XIX. MENDEKO JANZKERA

Nori gomendatua: LH4, LH5 eta LH6.

Lanketa eremua: Historia eta gizartea.

Iraupena: Ordubete.

Helburu espezifikoak:

- Kontestu historikoaren ideia orokor bat sortzea.
- Gizarte klaseak ezagutzea.
- Beste garai bateko gizabideak ezagutzea
- XIX.mendeko Euskal Herria ezagutzea jatzien ikuspuntutik
- Sormena eta gaitasun artistikoa garatzea.

Deskribapena:

XIX.mendeko bizimodua eta gizartea janzkeraren bitartez ezagutuko dugu. Jantzien bitartez ohitura eta egunerokotasunak ezagutuko ditugu. Estamentuak eta klaseak bereiziko ditugu hauen jantziei erreparatuz.



KOMIKIA



Nori gomendatua: LH4, LH5 eta LH6.

Lanketa eremua: Historia, ondarea, irudia, sorkuntza eta idazkera.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Helburu espezifikoak:


- Testuinguru historikoaren ideia orokor bat sortzea.
- Gizarte klaseak ezagutzea.
- Beste garai bateko gizabidea ezagutzea
- XIX.mendeko Euskal Herria ezagutzea
- Sormena eta gaitasun artistikoa garatzea.
- Ondare material eta immateriala balioan jartzea

Deskribapena:

XIX.mendeko bizimodua eta gizartea komikiaren bitartez ezagutuko dugu. Bi emakumek abiatuko duten bidaian murgilduko gara ilustrazioen bidez. Material didaktikoaren bidez, lokomotoran eginiko bidaian Gipuzkoa sakonera iritsiko dira, Ormaiztegi Bainuetxean ur sulfurosoez gozatzeko. Ze pasako da gero? Animatu eta idatzi abentura txundigarria.



IRUDITIK ZINEMATOGRAFIARA



Nori gomendatua: LH4, LH5 eta LH6.

Lanketa eremua: Historia, irudia, sorkuntza eta zinea.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Helburu espezifikoak:


- Kontestu historikoaren ideia orokor bat sortzea.
- Irudiaren garapena ezagutzea.
- Zinean zientziak izandako garrantziaz jabetzea
- Sormena eta gaitasun artistikoa garatzea.

Deskribapena:

XIX.mendeko sorkuntzak ezagutu eta hauekin batera zinematografiaren jaiotza. Irudiaren, mugimenduaren eta ilusio optikoen muduan murgilduko gara, lehen filmak nolakoak izan ziren ezagutzeko. Honela, parte hartzaile bakoitzak eskulan ezberdinak eta bere ilusio optiko propioa sortu ahal izango du.



EMAKUMEAK ZUMALAKARREGI MUSEOAN



Nori gomendatua: LH4, LH5 eta LH6.

Lanketa eremua: Historia, ondarea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa

Iraupena: Ordubete.

Helburu espezifikoak:

- XIX. mendean bizi izan ziren emakumeen zeregina ikusaraztea
- Haurrak emakumeen egoerari buruz sentsibilizatzea
- Erreferente femeninoak indartzea
- Historiaren zati isila ezagutzea, emakumeen errealitate ezberdinen bitartez
- Emakumeen ondarea ezagutaraztea


Deskribapena:

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako egokitutako bisita gidatua museoaren erakusketa egonkorran izkutatuta dauden emakumeen izenak ezagutarazteko

Bisitak liburuxko bat izango du gehigarritzat non Pancracia Ollok emakume hauek aurkezten ditu. Horrez gain Ollok hainbat hausnarketa eta erronka proposatuko dizkie.



FEILLET AHIZPAK EZAGUTZEN



XIX. mendera bidaiatzeko aukera ematen duen eta jolas-jarduerak dituen erakusketa txikia eta doakoa. Garaiko pinturan aitzindari izan ziren Hélène eta Blanche Feillet ahizpen lanen bitartez XIX.mendeko Euskal Herriaren aurkezpena.

Nori gomendatua: Lehen Hezkuntza 1., 2., 3. eta 4.

Helburu espezifikoak: Feillet ahizpen lana ezagutaraztea, bi artista aitzindari XIX. mendeko Euskal Herrian.

Konpetentziak: Pentsamendu sortzailea garatzea.

Deskribapena:


Maletaren edukia hiru karpetatatan banatua dago:

- 1.Karpeta: 10 ilustrazio. Hélène eta Blanche Feilleten lanak.
- 2.Karpeta: garaiko 6 egileen erreprodukzioak.
- 3.Karpeta: Hutsik, egindako lanak sartzeko.
- 4.Artelanak zintzilikatzeko soka eta txintxetak.

**Maleta didaktikoak doan uzten dira hilabetez. Bidalketa-gastuak eskatzen dituenaren kontu izango dira.*



GURE ONDAREA



Nori gomendatua: Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. maila eta DBHko 1go maila.

Iraupena: Tailerraren iraupena ikastetxearekin zehaztuko da. Gutxieneko ordu eta erdiko saio bat (gehieneko 3 saio).

Metodologia: Edukiak ondare hezkuntzaren bitartez lantzen dira, ondarearen kontzeptua banakakotik abiatuz kolektiboraino ikusten da.

Helburu espezifikoak: Ondarearen esanahia hurbildu eta sentsibilizazioa eta errespetua sortu partaideen gertuko inguruarekiko.

Konpetentziak: Ondare natural eta kulturalarekiko errespetua, eta honen kontserbazioarekiko interesa.

Deskribapena:

Ondarearen esanahia bakoitzaren esperientzia pertsonaletik hasita lantzen da. Gertutasun hori lortzen denean, taldearen ingurunearekin lotura bilatzen saiatzen da, ondareari buruz hausnarketa sakonagoa eginez. Kontzeptu honetan museoaren eginkizuna, bere bilduma, bere ondare historikoa, tresnak eta espazioak etab. lantzen dira.

**Programa hau hezkuntza maila bakoitzaren beharren arabera lantzen da.*



GUZTIOK GARA MIGRATZAILE



Nori gomendatua: Lehen Hezkuntzako 6. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1go maila.

Iraupena: Epe luzeko proiektua. Gutxieneko 5 saioetatik hasi eta ikastetxe zein irakasleak erabakitzen duen arte luza daiteke.

Helburu espezifikoak:

- Migrazioa gizakiari datzekion elementu moduan aurkeztea.
- Egunerokotasunean eragina duten gizarte fenomenoekiko hausnarketa kritikoa sustatzea.
- Pentsamendu kritikoa eta kontzientzia sustatzea belaunaldi berrien artean.
- Eztabaida sozialetan parte hartzea bultzatzea.

Konpetentziak:


Kontzientzia sortzea, ikaskuntza sustatzea, sentsibilizazioa, gogoeta garatzea, ikuspuntu berriak hurbiltzea, pentsamendu kritikoa indartzea eta ikerketa baliabideak ezagutzea.

Deskribapena:

Migrazioaren gaiaren hurbilketa bat egin, ahozko historiaren, eta eduki historikoen bitartez. Proiektua garatzeko baliabide didaktikoak eskaintzeaz gain, museoak dinamizatuko du saioa. Sei ataletan bereizitako material didaktiko bat garatu da honetarako. Bertan baliabide audiobisualez gain, lan materiala ere izango da. Taldearen adinera egokitutako material gehiagarriaren bidez dinamika ezberdinak gauzatuko dira.



ORMAIZTEGIKO TRENZUBIA



Nori gomendatua: DBH3. mailatik aurrera.

Iraupena: 45min.

Helburu espezifikoak: Ingeniaritza lan hau ezagutzea.

Konpetentziak: Ondare industrialarekiko sentsibilizazioa.

Deskribapena:

Bisita honen bi zati osagarriek Ormiaztegiako trenzubiaren egituraren testuinguru historiakoa zein haren ondare balioaren ezagutza zabaltzen dituzte.

Lehendabizi, museoan bertan ikusgai dagoen zubiaren maketaren modulu irisgarria aurkeztuz ezagutaraziko da trenzubia.

Ondoren, trenzubira abiatuz, bisitaren bigarren zatia egingo da . Bertan, burdinek eta harriek ezkututzen dituzten bitxikeria eta xehetasun guztiak ezagutzeko aukera izango dute ikasleek.



GIPUZKOA BEHIN BETIKO: LURRALDEA XIX. MENDEAN



Nori gomendatuta: DBH4. maila, Erdi Maila, Batxilergoa, Helduentzako Hezkuntza, Goi Maila eta Lanbide Heziketa

Duración: Ordu erdi

Helburu espezifikoak: Gipuzkoa lurraldea bilakatzearen prozesua gertutik ezagutu garaiko dokumentuak eta irudiak ikusiz

Konpetentziak:

Lurraldearen iragana ezagutu




2025/06/25 - 2026/01/04

Gipuzkoa
Behin Betiko:
Lurraldea XIX. mendean

GIPUZKOA

Definitivamente
Gipuzkoa:
El territorio en el siglo XIX



Deskribapena:

"Gipuzkoa behin betiko" Zumalakarregi Museoaren aldi baterako erakusketa da, Gipuzkoa aipatzen duen lehen dokumentuaren mila urteak gogoratzen dituen. XIX. mendeko mapa, grabatu eta testuen bidez, lurraldea gaur egun ezagutzen dugun moduan nola eratu zen erakusten du, eta haren bilakaera instituzionala, lurraldekoa eta kulturala nabarmentzen ditu.

* Erakusketa urtarrilaren 4ean ixten dugu, beraz hezkuntza taldeentzako bisita abendura arte eskainiko dugu

ESKAINTZA OSOA

Hezkuntza eskaintzaren izenburua:	Lehen Hezkuntza						Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza				Erdi Maila	Batxilergoa		Lanbide heziketa	Helduentzako hezkuntza
	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4	LH 5	LH 6	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4		1	2		
Zumalakarregi anaia: Jeneral karlista eta politikari liberala									x	x	x	x	x	x	x
Iraultza garaia										x	x	x	x	x	x
Gerra eta bakea										x	x	x	x	x	x
Museoko Haur ibilbidea	x	x	x	x											
Emakumeak Zumalakarregi museoa				x	x	x									
Kulturantzitasuna eta migrazioa				x	x	x									
Migrazioa eta historia						x	x	x	x	x	x			x	
XIX. mendeko janzkera				x	x	x									
Iruditik zinematografiara				x	x	x									
Komikia				x	x	x									
Guztiok gara migratzaile						x	x								
Gure ondarea					x	x	x								
Feillet ahizpak ezagutzen	x	x	x	x											
Ormaiztegiko trenbidea									x	x	x	x	x	x	x
Gipuzkoa behin betiko										x	x	x	x	x	x



ELEMENTU OSAGARRIAK

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA



Museora bisita antolatzeko helburuarekin eta ibilbidea ikastetxearen beharrei egokitzeko asmoz, Zumalakarregi Museoak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die eskatzen duten irakasleei. Gainera, ibilbide bakoitzeko material didaktikoa eta irakasleentzako txostenak dauzkagu.

Museoa irakasle eta zentrozen beharretarako prest egongo da uneoro, babesa eta orientazioa emateko.

Eskaintza birtualaren kasuan, aurretiaz, gutxieneko bilera birtual bat gauzatuko da, jarduera taldearen beharretara egokitzeko helburuarekin.

Irakasle eta museoaren artean adostuko da erabilitako plataforma birtuala, dinamikaren luzapena eta online material didaktikoa jasotzeko aukera.

ARTXIBO AKTIBOA

Museoko webgunean, (www.zumalakarregimuseoa.eus/es), XIX. mendeko gai ezberdinekin lotuta dauden hainbat ikerketa aurkitu daitezke: erakusketa birtualak, artikulak, ikerketak, soinu artxiboa, etab.



IRAKASLEAK

Ikasleak eta irakasleak

Ibilbideak

Irakasleak

Tallerrak

Maleta Didaktikoa

Museoa Familian

Aholkularitza pertsonalizatua

Museora bisita antolatzeko helburuarekin eta ibilbidea ikastetxearen beharrei egokitzeko asmoz, Zumalakarregi Museoak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die eskatzen duten irakasleei. Gainera, ibilbide bakoitzeko material didaktikoa eta irakasleentzako txostenak dauzkagu.

Harremanetarako formularioa

Artxibo digitala

XIX. mendeko gai desberdinekin lotuta dauden hainbat ikerketa aurkitu daitezke: erakusketa birtualak, artikulak, ikerketak, soinu artxiboa, etab. [Artxibo digitala](#)

[ZUBIAK 2023-2024 HEZKUNTZA ESKAINTZA \(PDF\)](#)



Artxibo aktiboa

Erakusketak

Argitalpenak

Urteroko ekitaldiak

Artxibo aktiboa

- Istorioak gaika
- "Pour Don Carlos" proiektua
- Oriamendiko gudua. 1837
- "Urgullen magalean" zabalduz: Euskal herriko estanak
- "Leopoldina Rosa: gaur egungo istorio bat"
- XIX. mendeko emakume esploratzaileak
- BERGARAKO besarkadaren aurrean; Keinua eta interpretazioa
- ZM 1989-2019. "30 begirada"
- Txapela XIX. mendean
- "mappingalbum.net": "Euskal Herria: Paisaiak aldatzen"
- "Industria paisaia" proiektua
- HÉLÈNE & BLANCHE FEILLET: Emakume margolari aitzindariak XIX. mendeko Euskal Herrian.
- San Luisen Ehun Mila Semeak. 1823
- Afrikako gerra (1859-1860)
- XIX. MENDEKO albuma



ZUBIAK

ZUMALAKARREGI MUSEOAREN
2025-2026 HEZKUNTZA ESKAINTZA